

## **ARTEA ETA GENEROA: IKUSPEGI**

### **FEMINISTAK HEZKUNTZAN**

#### **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Peña Pajares, Lorena.

ZUZENDARIA: Aguirre Etxeita, Maria Jesús.

**2019**

## LABURPENA

Gure historian zehar izandako sistemen artean, patriarkatua gizonak emakumearekiko duen dominazio eta emakumearen menpekotasunean oinarrituta dagoen lehenengo sistema izan da. Gaur egun, oraindik, sistema arrunta da eta eragin handia du gure gizartean emakume eta gizonen arteko desberdintasunak sustatuz. Arte historian ere emakumearen zapalkuntza nabarmena izan zen. Adin gabe bezala tratatua izan da duela gutxira arte eta arlo publikoan ezin zuen parte hartu. Egitura patriarkalaren jarraipena, hau da, genero desberdintasuna eta emakumearen menpekotasuna mantentzeko matxismoa agertu zen. Emakumeak gizartean pairatzen zuen egoerari erantzuna emateko asmoz, feminismoa sortu zen. Honek emakumearen eskubideak aldarrikatu eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna defendatzen ditu.

Gizartean emakume eta gizonen arteko desberdintasunetatik sortzen diren kalteak arlo desberdinei eragiten die, eta arlo horien artean gizartean inpaktu gehien duenak hezkuntza da. Hezkuntzak hiritar berriak eraikitzen ditu eta txikitatik generoa modu egokian lantzea beharrezkoa da. Horretarako, hezkuntza transbertsala garatzea garrantzitsua izango da ezagutza disziplinarraren (matematikak, historia, artea, etab.) eta gai eta testuinguru sozial, kultural eta etikoen artean lotura sortuko baita. Zeharkako hezkuntzarekin batera, betaurreko moreak jartzea garrantzitsua izango da ikuspegi feminista batetik hezteko. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko feminismo ikuspegiekin batera hezkidetzak landu beharko da etorkizuneko hiritarrak berdintasunean oinarritutako gizarte berri bat sortzeko asmoz.

**Hitz gakoak:** Patriarkatua, matxismoa, feminismoa, generoa, artea eta zeharkako hezkuntza.

## RESUMEN

Entre los sistemas que ha habido a lo largo de nuestra historia, el patriarcado ha sido el primer sistema basado en la dominación y la dependencia de la mujer ante el hombre. Hoy en día, sigue siendo un sistema común y tiene una gran influencia en promover las desigualdades entre mujeres y hombres en nuestra sociedad. Al igual que en nuestra historia en la historia del arte, la opresión de las mujeres también ha sido significativa ya que

las mujeres han sido tratadas como menores de edad hasta hace poco no pudiendo participar en los ámbitos públicos. Para mantener la estructura patriarcal, es decir, la desigualdad de género y la subordinación de la mujer surgió el machismo. Frente a la situación que sufría la mujer en la sociedad, se creó el feminismo que reivindica los derechos de las mujeres y defienden la igualdad entre mujeres y hombres.

La situación social afecta a diferentes áreas, y entre ellas la educación es la que más impacto social tiene. La educación construye nueva ciudadanía y es necesario que en ella se trabaje el género de manera correcta desde muy temprana edad. Para ello, el desarrollo de la educación transversal será importante en la disciplina del conocimiento (matemáticas, historia, arte, etc.), así como en la conexión entre los problemas y contextos sociales, culturales y éticos. Junto con la educación transversal, es necesario tener un punto de vista feminista para poder educar desde la igualdad entre hombres y mujeres. Para lograr la igualdad entre mujeres y hombres, es importante que el feminismo trabaje junto con la coeducación. De esa manera, en un futuro se podrá crear una nueva sociedad basada en el respeto y la igualdad.

**Palabras clave:** Patriarcado, machismo, feminismo, género, arte y educación transversal.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Justifikazioa.....	5
3. Marko teorikoa.....	6
3.1. Patriarkatua.....	6
3. 1. 1. Dibertsitate sexuala.....	7
3. 1. 2. Transgeneroa.....	8
3. 1. 3. Matxismoa.....	8
3. 2. Ikuspegi feministak.....	9
3. 2.1. Artea eta generoa.....	10
3. 2. 2. Feminismoa arte historian.....	12
3. 3. Hezkuntza.....	15
3. 3. 1. Ikuspegi feministak hezkuntzan.....	17
4. Helburuak.....	19
5. Metodoa.....	20
6. Emaidzak.....	22
7. Ondorioak.....	26
8. Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	32
9. Erreferentziak.....	34
10. Eranskinak.....	37

## 1. SARRERA

Gaur egun emakume eta gizonen artean dauden eskubide desberdintasunak nabarmenak dira. Gizonek betidanik izan dituzten pribilegioak emakumeek ez dituzte. Ondorioz, gizartean feminismoaren presentzia baita hiritarren kontzientziazioa ere areagotzen ari da.

Burututako txostenaren bidez, prozesuan zehar barneratutako ezagutza berriak, aztertu diren kontzeptuak eta emaitzak, pentsamenduak, sentimenduak, etab. adieraziko dira. Lortutako informazioari esker, lana modu egokian osatzeko aukera izan da.

Txostenaren atalei dagokienez, hamar atal nabarmentzen dira: sarrera, justifikazioa, marko teorikoa, helburuak, metodoa, emaitzak, ondorioak, mugak eta hobekuntza proposamenak, erreferentziak eta eranskinak.

Hasteko, txosten hau garatzeko gaiaren aukeraketaren justifikazioren berri emango da. Horren barnean, aukeratutako gaiak hezkuntzan eta gizartean orokorrean duen garrantzia adieraziko da, gaia zergatik aukeratu den defendatuz.

Ondoren, marko teorikoaren atala jorratuko da. Bertan, patriarkatua, ikuspegi feministak eta hezkuntza puntu garrantzitsu bezala garatuko dira. Horien barnean, dibertsitate sexuala, transgeneroa, matxismoa, artea eta generoa, feminismoa arte historian eta ikuspegi feministak hezkuntzan jorratuko dira azpi-puntu moduan. Gai hauek jorratzeko erreferentzia desberdinak bilatu dira internet erabiliz.

Txostenaren atalekin jarraituz, inkestaren bidez lortu nahi diren helburuak adieraziko dira. Horren ostean, galdetegia sortzeko eta hiritarren artean zabaltzeko erabili den metodoa azalduko da. Bertan, burututako inkesta egiteko jarraitu diren pausuak garatuko dira. Horien artean, helburuak jakinda galdera batzuk sortzea, zenbat galdera garatu diren, zein adinetako pertsonak erantzun dezaketen inkestari, nolako inkesta den, nola zabaldu den pertsonen artean eta abarreko pausuak daude. Inkestan eskuratu diren erantzunez baliatuz, emaitzak garatuko dira. Emaitzak kontuan izanda, ondorioak adieraziko dira, eta bertan eskuratu nahi diren helburuak lortu diren edo ez azalduko da, besteak beste.

Nabarmentzekoa da baliatu den informazioan mugak aurkitu direla. Adibidez, ikuspegi feministak hezkuntzan inguruko informazioa aurkitzeko zailtasunak egon dira. Amaitzeko, txostenean zehar erabilitako erreferentziak baita eranskinak aipatu egingo dira. Hauek lanean zehar aipatuta aurkituko dira.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Gizartean bizi dugun emakume eta gizonen arteko eskubide ezberdintasuna ikusita eta Haur Hezkuntza gradua egiten egon naizen lau urte hauetan bizi izandako esperientziaren ondorioz, Gradu Amaierako lana *“Artea eta Generoa: Ikuspegi feministak hezkuntzan”* gaiaren inguruan egitea erabaki dut.

Txikitatik etxean, gure gurasoen rol desberdinak ikusten ditugu. Amak etxetik kanpo lan egiteaz gain, etxeko lanak egiten ditu eta familia kideen zaintzaz arduratzen da, besteak beste. Aitak berriz, etxetik kanpo lan egiten du eta gehienetan ez da etxeko lanetaz arduratzen. Egoera horretan, haurrek bere izaera garatzen dute gizarte egituraren (patriarkatua) eta bertan dagoen emakumearen zapalkuntzaren eredia errepikatuz.

Haurrek etxean genero desberdintasunean oinarrituta izan dezaketen eredia kontuan izanda, hezkuntzak paper handia du. Familiak gain, hezkuntzak haurrak hezten ditu eta honen laguntza egokiarekin gizartean dagoen egitura aldatzea lortu daiteke. Horregatik, hezkuntzak genero berdintasunean oinarritutako eredia garatu behar du generoa eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna modu egokian landuz. Etorkizun batean, genero berdintasunean hezi diren haurrak gizartean helduak izango dira.

Horrez gain, duela urte batzuk feminismo eta genero berdintasunaren inguruan gero eta gehiago entzuten hasi nintzen eta horren inguruan ikerketa bat egiteko gogoia izan nuen. Halaber, artea betidanik gustatu izan zait baina ez dut inoiz emakumearen egoeraz informazioa bilatu eta interesgarria iruditzen zait. Unibertsitatean iazko urtean arte irakasgai izan nuen irakasleari esker, arte historian emakumearen egoeraz interesatzen hasi nintzen. Horrekin batera, feminismoa pentsatzen nuena baino denbora gehiago daramala gure gizartean emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzen konturatu nintzen.

Oro har, hezkuntzan feminismoaren ikuspegi desberdinak lantzea eta hauek barneratzea eraginkorra izango da gizartean aldaketa bat gertatu ahal izateko. Feminismo ikuspegiari esker, haurrak hezkidetzan oinarritutako esparru batean hezi egingo dira. Halaber, feminismoa gaur egun gure gizartean presentzia handia duen mugimendua da eta horren inguruan informazioa eta prestakuntza izatea garrantzitsua da. Irakasleen eta orokorrean, pertsonen prestakuntza handiagoa izan behar da. Bizi garen gizartean dagoen egituraz eta honek emakume eta gizonen artean eragiten duen eskubide ezberdintasunetaz kontzientzia hartu behar dugu. Teoriatik praktikara igaro behar gara gizartean dagoen genero desberdintasunari aurre egiteko.

### **3. MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. Patriarkatua**

Hurrengo atal honetan patriarkatuaren kontzeptua azalduko da. Horretarako, hainbat autoreen ideiak laburbildu eta horien definizioak emango dira. Horrez gain, patriarkatuak gure bizitzan duen eragina eta ondorioak adieraziko dira. Azkenik, gaur egun bizi garen gizarte kapitalista eta heterosexistaren ondorioz, beharrezkoa da isilduak izan diren eta oraindik diren kontzeptuak garatzea. Kontzeptu horien artean, dibertsitate sexuala eta transgeneroa daude.

Hasteko, patriarkatua dominazio eta menpekotasun sistemarik zapaltzaileena da. Historian agertutako lehenengo dominazio eta menpekotasun sistema izan da. Gaur egun, oraindik, dominazio sistema arrunta da, boterean eta desberdintasunean oinarrituta dagoena. (Cagigas, 2000). Batzuetan, heteropatriarkatua ere deitzen zaio. Nahitaezko heterosexualitatea patriarkatuaren erakundearen iraunkortasuna mantentzeko beharrezkoa da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko derrigorrezko bizikidetzaz bultzatzen duelako. (Fontenla, 2008)

Adrienne Rich-en (1996) arabera sistema patriarkala sistema familiar, sozial, ideologiko eta politikoa da, zeinetan gizonek emakumeen papera zein izan behar den erabaki eta inposatzen duten indarra, presio zuzena, ohiturak, hezkuntza eta beste hainbat baliabide erabiliz. Aita edo familiako gizonik zaharrena, patriarka, etxeko nagusi bezala hartzen duen gizarte-sistema da. Modu horretan, emakumeak propietate pribatu bat bezala ikusi dira historian zehar (Melero, 2010). Familia beraz, seme-alaben sozializazioaren erantzule da, ideologia patriarkalak ezarritako paper, izaera eta posizioa erakutsi eta inposatzea baita bere lana (Millet, 1995).

Oro har, patriarkatua harreman sozial eta sexu-politikoetan, baita erakunde pribatu eta publiko desberdinetan ere oinarritutako sistema gisa definitu daiteke. Erakunde horiek gizonezkoek sortutakoak dira eta talde sozial moduan (bakarka edo kolektiboki) emakumeak zapaltzen dituzte. (Fontenla, 2008). Nabarmendu beharra dago, emakumea gizonaren menpe bizi zela eta duela gutxira arte emakumea adingabekoa bezala tratatua izan dela. Emakumeek 25 urte bete arte aitaren edo senarraren menpe zeuden eta haien baimena behar zuten edozein ekintza publiko edo familiarra egiteko. Ondorioz, emakumearen papera gizartean bigarren plano batean dago. (Ruiz eta Nielfa, 2007)

Stolcke-k (2003) bere lanean Simone De Beauvoir-ek (1949) *“El segundo sexo”* liburuan adierazi zuen esaldi bat garatzen du eta honakoa da; *“No se nace mujer, se llega a serlo”*, hau da, emakume eta gizonen arteko desberdintasun biologikoek ez gaituzte eduki maskulino eta femeninoetaz hornitzen (Stolcke, 2003). Emakume edo gizon jaiotzen gara eta ez maskulino edo femenino izaten. Azken biak eraikuntza baten ondorioz sortzen dira, kasu honetan, egitura edo eraikuntza sozialarengatik (patriarkatua). Handitzen garen heinean, sozializazioaren bitartez rol desberdinak barneratzen ditugu maskulinitate edo feminitate eremuetan sartuz. Ondorioz, haurrak pribatuak dira, ez zaie garapen aske bat izaten uzten eta ez zaie ezarritako rol horietatik ateratzeko aukera ematen. (Cagigas, 2000)

### 3. 1. 1. Dibertsitate sexuala

Gaur egun, gizarte kapitalista eta heterosexista batean bizi gara. Heterosexismoaren barnean, honako ideia hauek daude: pertsona guztiak heterosexualak direla segurutzat ematen da, pertsonen artean emakume eta gizonen arteko banaketa egiten da bakarrik, harreman afektibo-sexual egokienak emakume eta gizonen artean ematen direnak dira eta sexualitatearekin harremana duten jarrerak gizartean *“normaltzat”* hartzen ez badira, bizkarra ematen edo uko egiten zaie. (Berdindu, 2018)

Horrez gain, heterosexismoa ez da gai dibertsitate sexuala antzemateko. Nahiz eta maitasuna, sexua, etab. modu desberdinen bitartez adierazi daitekeen, heterosexismoak dibertsitate sexuala ikusezina egiten du. (Giberti, 2003)

Ezeztatzen den arren, dibertsitate sexuala erreala da eta hona hemen adibide batzuk. Hasteko, homosexualitatea dago eta *“lesbiana”* edo *“gay”* hitzak erabiltzen dira hauei erreferentzia egiteko. Homosexualitatea zure sexu berdineko pertsona bat gustuko duzunean ematen da. Jarraituz, bisexualitatea dago. Hau gertatzen da zure sexu berdineko eta sexu desberdineko pertsonak gustuko dituzunean. Azkenik, transexualitatea dago. Honetan, pertsonaren genitalak ez datoz bat bere sexu identitatearekin. Sexu identitatea pertsona bakoitzak bere ezaugarria fisiko eta biologikoen inguruan ebaluazioa egin eta gero, gizona edo emakumea sentitzen den edo ez pentsamenduari erreferentzia egiten dio. Ondorioz, pertsona batzuk sexu esleipena berriro egitea behar dute eta ebakuntza egiten dute bere genitalak haren sexu identitatearekin bat etortzeko. Nabarmendu beharra dago transexual guztiak ez dutela ebakuntza egiten. (Berdindu, 2018)



### **3. 1. 2. Transgeneroa**

Gaur egun, transgenero kontzeptuaren erabilpen handiagoa egiten ari da, eta ez da pertsona transexualei erreferentzia egiteko bakarrik. Transegenero kontzeptua gizartean dagoen sistema bitarrarekin, hau da, emakume/gizon banaketarekin, identifikatuta sentitzen ez den pertsona aipatzeko erabiltzen da. (Domínguez, García eta Hombrados, 2011)

Adierazitako sistema bitarrarekin identifikatuak sentitzen ez diren pertsonak talde desberdinak sortzen dituzte. Talde horien artean, pertsona transexualak (sexu fisiko okerrarekin jaio direla sentitzen duten pertsonak direnak nahiz eta ebakuntza eginda izan edo ez), trabestiak (barneko identitatea hobeto azalertzeko kontrako sexuaren arropak jansten dituztenak) eta pertsona intersexualak (bi sexuei lotutako ezaugarriak dituztenak hermafrodita bezala ezagutzen zirenak) daude, besteak beste. (Giberti, 2003)

### **3. 1. 3. Matxismoa**

Gizartean dagoen egitura patriarkalaren ondorioz, matxismoa sortzen da. Matxismoa gizonak emakumearengan duen nagusitasunak sortzen dituen jarrerak eta pentsamenduak bezala definitzen da. Halaber, emakumezkoenganako jarrera, hizkuntza eta portaeran oinarritzen da eta kulturean dauden pentsamendu edo ohiturekin erlazionatzen da. (Torres eta Delgado, 2018)

Matxismoaren funtsa ezaugarri maskulinoen handitzean baita gizonaren nagusitasunean sinistean datza ere. Halaber, matxismoa beste ezaugarri batzuetaz osatuta dago gizontasunarekin bat egiten dituztenak. Benetazko gizona izateko ezaugarri maskulino zehatzak izan behar dituzu femeninoa ez iruditzeke. Horien artean, gizonaren heterosexualitatea eta agresibitatea egongo liriteke. (Zapata-Salazar, Petrzalová-Mazacová eta Chávez-Martínez, 2016)

Gizakiek haien identitatea eraikitzeke, familiak, eskolak eta inguratzen dituen gizarteak irakasten dizkien lehenengo kontzeptuak ikastera behartuta daude. Ikaskuntza horren barnean, generoaren ikasketa garrantzitsuenetarikoa da. Kultura bakoitzean kodigo, estereotipo eta rol desberdinak daude gizarte horretako gizonenganako jarrera eta itxaropenak gidatzen dituztenak. Nabarmendu beharra dago matxismoa klase sozial eta kultural guztietan ematen den kontzeptua dela nahiz eta haren adierazpena ezaugarri batzuetan aldatu. (Zapata-Salazar, Petrzalová-Mazacová eta Chávez-Martínez, 2016)

Matxismoa txikitatik agertzen edo ikasten da. Ume baten gurasoek bizi duten gizarte patriarkalaren ondorioz etxean matxismo egoerak sortzeak (aitaren dominazioa eta amaren pasibotasuna), umeak jarrera berdinak izatera edo egitera bideratzen du gizartearen egitura patriarkala jarraituz. Halaber, umearen lagun taldea maskulinoa izango da beti edo ia beti eta haien jolasak eta zaletasunak maskulinitatean oinarritutakoak. (Torres eta Delgado, 2018)

Esandakoa kontuan hartuz, gizonek emakumeengan duten boterea mantentzeko, genero indarkeria sortzen da. Hau emakumeari emakume izateagatik egindako indarkeria da. Zehatzago, sexu-bereizketan oinarritzen den eta emakumea helburu duen edozein indarkeria da, emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo soziala eragiten diena. Hauek bizitza publikoan zein pribatuan gertatzen dira. (Lugo, 1985)

Gaur egun, matxismoaren desagertzea proposatzen den arren, genero indarkeri kasu asko daude gizartean eta horrek matxismoa oraindik gizartean barneratuta dagoela adierazten du. ONU-k estadistika desberdinak egin eta gero, mundu osoan dauden emakumeen %35 indarkeri fisiko/sexuala jasan dutela haien senarrengandik adierazi du. Harrigarriena, giza hilketen guztizkoen artean %38 emakume beraren senarra izan dela emakumea hil duena da. (Sevilla eta Ventura, 2007)

### **3.2. Ikuspegi feministak**

Emakumeek gizartean sufritzen zuten menpekotasuna eta pribilegio falta ikusita, haien eskubideak eta gizonarekiko berdintasuna aldarrikatzen hasi ziren. Eskubide eta berdintasun hori lortzeko sortu ziren mugimenduei mugimendu feministak deritze. (Torres eta Delgado, 2018)

Feminismoaren definizioari dagokionez, Susana Gamba-k (2008) feminismoa emakumearen askatasuna defendatzen duten mugimendu guztiak barne hartzen duen kontzeptua dela adierazten du. Horrekin, feminismoa arlo politikoa, ideologikoa eta korrante desberdinak barne hartzen ditu haien artean nahasketa eta hausnarketa desberdinak sortuz. Hausnarketa horiek aldakorrak eta heterogeneoak dira baina helburu berdina dute: diskriminazioa eta sexismoa gizarte eremu guztietatik desagertzea.

Feminismoaren eboluzioari arreta eskeintzen badiogu, ez da hasiera argirik ikusten. Iraultza frantsesaren ondoren, hiritarren artean garatu ziren eskubideak gizonezkoiei erreferentzia egiten zieten bakarrik. Ondorioz, emakumeen eskubideak alde batera uzten

zirela eta emakumeek berezko borroka egin behar zutela konturatu ziren. Haien lehenengo helburua gizartean botoa ematea izan zen, besteak beste. Modu kolektiboan batu ziren lehenengo aldia, boto eskubidea lortzeko izan zen. (Gamba, 2008)

Mugimendu honen berrikuntzetako bat zapalkuntza politiko eta ekonomikoaz gain, patriarkatua aspektu eta maila guztietan erreproduzitzen zela konturatzea eta horren inguruan hipotesi eta borroka eredu desberdinak planteatzea izan zen. Sexualitatearen zapalkuntzaren kontra aritu ziren, gizartean hain barneratuta zeuden ohitura eta jarrera sexistak ikustaritzen saiatuz, besteak beste. Halaber, legeak eta guneak aldarrikatzen ziren bizitza egoera desberdinetan arlo pribatu baita arlo publikoan ere. Guneak patriarkatuak eginikoak eta patriarkatuarentzat ziren eta boterearen eta kulturaren egitura androzentrikoa sortzen zuten. (Melero, 2010)

Borroka feminista lorpen desberdinak izan eta gero, beherapeneko etapa batean sartu zen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, feminismoak indarra hartu zuen Simone De Beauvoir-ek *“El Segundo Sexo”* liburua (1949) idatzi zuenean. Modu horretan, gizartean zuten paperarekin ados ez zeuden emakumeei begiak irekitzen lagundu zien. Ondorioz, feminismoarentzat etapa berria sortu zen baita honen barnean eratu ziren korrante desberdinentzat ere. (Gamba, 2008)

Oro har, feminismoaren helburua ez da emakumeak gizonaren gaineko boterea izatea baizik eta bizi garen sistema honetaz askatzea eta aldaketak egitea. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko asmoz baita bien interesei erantzuna ematen dien gizarte bat sortuz ere. (Melero, 2010)

Gaur egun talde feminista asko daude. Horien artean, Arabako Emakumeen Asanblada, Naizen, Sorginen Alabak, Comando Violeta, Zoko Maitea, Izaera, Andrak, Gaurko Andreak, Lilaton Taldea, Esnatu, Andreok Orereta-Amalataz eta Brujas Feministas, besteak beste. Talde guzti hauen helburua emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeari historian zehar eman ez zaion garrantzia eta eskubideak lortzea da. (Emakunde, 2009)

### **3. 2. 1. Artea eta generoa**

Gizartean gertatzen zen bezala, emakumea arte munduan ere gizonaren menpe zegoen. Haren gorputza sexualizatuta eta gizonezkoen kontsumorako sortzen zen. Emakumea irudikatua izan den kuadro edo objektu artistiko bakoitzean, eta bereziki

emakumearen gorputz biluzia, gizonezkoentzat probokazio sexuala aldarrikatzen duen obra da. Kasu gehienetan, emakumeak kontsumorako objektu erotikotzat hartu izan dira gizonaren eskubide berdinak dituen subjektutzat baino. Emakumeak automatikoki gizonezkoen menpeko objektu bezala hartuak izan dira, haien autonomia garatzeko aukera galduz. (Mayayo, 2018)

Esandakoa kontuan izanda, gizartea generoaren bidez, hau da, gorputzaren bidez antolatzen da. Generoa, egitura sozialaren parte da, hots, gizartean dagoen kulturaren ondorioz sortzen dena da. Beste modu batean esanda, bizi garen kulturaren pertsona bakoitzaren identitatea bilatzeko edo sortzeko gorputza oinarritzat da. Modu horretan, maskulinitatea eta feminitatea gorputzarekin erlazionatzen da. Ondorioz, gorputza ezaugarri sozialen eramailea da, ideia kulturalak eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunak egituratuz. (Butler, 2001)

Egitura sozialaren ondorioz, emakumea objektu bat izango balitz bezala tratatua izan da. Emakumeak gizonarekin alderatuta ez zuen botere berdina eta trukatu eta nahi zenean hartu zitekeen objektua zela pentsatzen zen. Adierazitakoa oso ondo ikusi daiteke *“El rapto de las Sabinas”* koadroan. Obra hau Nicolás Poussin-ek egin zuen 1637-1638 urteetan zehar. Bertan, emakumeak modu bortitza batean adierazita daude, Erromako gizonak hauek bahitzen ari diren momentua irudikatuz. Erromatarrak emakume falta zuten eta Sabinoen emakumeak ikusita, hauek bahitzea pentsatu zuten. Horretarako, festa bat egin zuten Erroman eta bertara joan ziren Sabinoen emakumeak bahitu zituztenak. (Prieto, 2016)

Nahiz eta *“El rapto de las Sabinas”* koadroak historiaren momentu dramatiko eta bortitza helarazi, gaur egun, elizan dauden sakristia batzuetan ikusi daiteke. Halaber, arte klase askotan erreferente gisa erabiltzen da ikasleak artearen inguruan ikasteko. Obra hau *“normaltzat”* hartzen da eta ostendu egiten da benetako mezua. (Prieto, 2016)

Artea eta emakumearen artean dauden harremanen inguruan egin behar dugun galderarik nagusia Linda Nochlin-ek adierazi zuen 1971 urtean, eta horrela zioen; *“Zergatik ez dira emakume artista adierazgarriak existitu?”*. Kontua da emakume artista adierazgarriak egon zirela, baina haien obrek ez zuten arrakastarik izan, garai horretan zegoen kanon-a ez baitzuen emakumeek egiten zuten artearekin bat egiten. Halaber, aurkitzen ditugun emakumeen ekarpenak gutxi izango dira emakumeari mende askotan zehar kultura eta eremu publikoarekin zerikusia zuen guztia debekatu zitzaizolako. Eskola eta akademia artistikoetara joatearen ezintasuna eragile nagusia izan daiteke baina gehiago

daude: umeak izatea, seme-alabak, etxeko zaharrenak eta gaixo dauden familia kideak zaintzea, lan bat gidatzeko eskubide legalen falta, etab. (Chadwick, 2000)

Errenazimendutik XIX. mendera arte, giza gorputzaren biluziaren pintura beharrezkoa zen edozein artistaren formakuntzarako. XIX. mendearen amaierara arte, emakumeek debekaturik izan zuten margotzeko edozein modelo biluzia ikustea, are gehiago gizonezkoa baldin bazen. Ondorioz, emakumeek pintura historikoa edo mitologikoa bezalako generoak ezin izan zituzten errepresentatu. Emakumeek errepresentatu behar izan zituzten pintura generoak kategoria baxukoak kontsideratzen ziren. Genero kategoria horien artean, erretratuak, paisaiak eta natura hila zeuden, besteak beste. (Mayayo, 2018)

Linda Nochlin-ek (1931-201) argi zeukan historian zehar Miguel Ángel edo Picasso bezalako emakume artistak izan ez baldin badira, ez da emakumeek talentu artistikorik izan ez dutelako. Talentu artistiko hori modu librean garatzea oztopatu duten faktore asko egon dira, eta horien artean faktore sozialak, ekonomikoak eta legalak daude, besteak beste. (Mayayo, 2018). Halaber, literatura artistikoen, literatura historikoen, museoek eta erakusketek emakumeak kanpoan utzi dituzte ia gaur egun arte. (Pollock, 2013).

### **3. 2. 2. Feminismoa arte historian**

Gizartean emakumeek gizonekin alderatuta zeukaten eskubide edo pribilegio faltari eta emakumeek pairatzen zuten menpekotasunari aurre egiteko artearen arloan ere hainbat emakume artista eta mugimendu feminista desberdinak agertu ziren. Hauek arte historian zehar egon diren eta gaur egun dauden emakume artisten presentzia aldarrikatzen dute, besteak beste.

Emakume artista horien artean, Judy Chicago nabarmentzekoa da. Chicago artista feminista da eta 1973 urtean *"The Dinner Party"* (*"La Cena"*) proiektua sortu zuen. Proiektu horrek emakumearen presentzia historian zehar aldarrikatzen zuen instalazioa osatzen zuen. Bertan agertzen diren mezuak adierazgarriak dira. Alde batetik, triangelu aldeberdina forma duen mahaiak berdintasunari erreferentzia egiten dio baita emakumeen bagina formari ere. Bestalde, triangeluaren alde bakoitzean dauden hamairu plater eta mahai-tresnek *"Azken Afarian"* egon ziren hamairu gizonak baita sorgin taldeak sortzen zituzten hamairu emakumeak adierazten dute. Plater bakoitzak historian zehar egon den emakume bat adierazten du eta haren izena mahaiaren bordatuta agertzen da. Plater bakoitzean kutsu baginalak margotuta daude. Halaber, mahai azulejoz osatuta dagoen gainazal handi baten

gainean kokatuta dago non bederatziehun eta laurogeita hemeretzi emakumeen izenak idatzita agertzen diren. (Mayayo, 2018)

Chicago-k egin zuen instalazioak bi helburu argi zituen; historia ikuspuntu femenino batetik berridaztea, hau da, gizonaren historia izatetik emakumearen historia izatera igarotzea eta *“Azken Afaria”* janaria beti prestatu duten pertsonen ikuspuntutik azaltzea emakumearen presentzia aldarrikatuz. (Mayayo, 2018)

Emakume artistekin jarraituz, *“Susana y los viejos”* koadroa nabarmendu beharra dago. Obra hau Artemisia Gentileschi-k (1610) sortu zuen, emakumeak gizartean jasan behar zituen genero-abusuak salatzeke. Gentileschi-k txikia zenean bortxaketa bat baita epaiketa iraingarria ere jasan zuen. Horren ondorioz, kuadro batean bizi izan zuen egoera irudikatu zuen. Bertan, emakume bat eta bi gizon zahar (epaileak) ikusi daitezke. Susana biluzik agertzen da eta haren gorputz jarrerak ezezkoa ematen ari delaren jarrera adierazten du bi gizon zaharren proposamen lizunei. Ondorioz, bi gizon zaharrek adulterioarengatik Susana epaitu zuten. Azkenean, Susanak gizon zaharrek gezurra esaten ari zirela frogatu zuen eta ez zen zigortua izan. (Mayayo, 2018)

Horrez gain, Yolanda Domínguez gaur egun nabarmendu beharreko emakumea da. Hau komunikazioan eta generoan oinarritutako artista da eta artea gizartean dauden pertsonen kontzientzia esnatzeke erabiltzen du. Horretarako, *“Little Black Dress”* proiektua sortu zuen, besteak beste. *“Little Black Dress”* 38 neurria duen soineko beltz eta motz bati egiten dio erreferentzia eta gorputz, arraza eta adin desberdinetako emakumeei soinekoa jantzita dutelarik argazki bat ateratzean datza. Ondorioz, emakume guztiei soinekoa ez zaie berdin geratzen baina emakume guztiek kamera aurrean jarrera boteretsua eta haren gorputzetaz harro daudela helarazten dute. Proiektu honen helburuen barnean, generoaren inguruan hausnarketa egitea eta gorputz guztiak egokiak direla aldarrikatzea da, gizarteak ezarritako kanon-a alde batera utziz. (Domínguez, 2017)

*“Little Black Dress”* proiektuaz gain, Domínguez-ek hainbat proposamen desberdin aurrera eramán ditu. Horien artean, *“Estamos aquí”*, *“Poses”* eta *“Accesibles y Accesorias”* proiektuak nabarmendu behar dira, besteak beste. Azken proiektu horrekin, betaurreko marka famatu baten iragarkia kentzea lortu zuen non emakumea estreinatzeke dagoen objektua bezala adierazten zen. (TEDxMadrid, 2017)

Domínguez artistaz gain, Esther Ferrer emakume artista ere nabarmendu beharra dago. Ferrer Donostiarra da eta performance desberdinak sortzen ditu. Estilo minimalista

erabiltzen du eta espazio irekiak, hau da, arlo publikoak gustoko ditu bertan egiten den artea mugak ez dituelako. Esther Ferrer feminista da eta gizartean dagoen menpekotasun patriarkalaren aurka dago. Patriarkatuaren egitura, emakumeak pairatzen duen menpekotasuna helarazteko eta emakumeari inposatzen zaion edertasun kanon-a salatzeke, Ferrer-ek performance desberdinak sortu ditu. Horien artean, “*Acciones corporales*” eta “*Intimo y personal*” performance-ak daude. (AIF arteinvestigaciónyfeminismos, 2018)

Ferrer-entzat artistek gizartean gertatzen ari denaz informatuak egon behar dira eta informazio hori haien erakusketa edo obren bidez adierazten jakin behar dute. Horregatik, garrantzitsua da artista informatuta egotea eta gertatzen dena nola kontatu jakitea. Horren adibide ona Esther Ferrer-i gertatu ziztaiona da. Performance bat egin baino lehen, egunkarian, 2015 urtean genero indarkeriaren ondorioz 109 emakume hil zirela irakurri zuen. Hori kontuan izanda, egin behar zuen performance-a aldatu zuen eta 109 aulki jarri zituen erail zituzten emakume horien oroimenez. 109 aulkien ondoan maniki bat jarri zuen kartel batekin non 2015 urtean 109 emakume erail dituztela genero indarkeriaren ondorioz idatzita agertzen zen. Performance hau erakusketan sartzera ikusten zen lehenengoa zen eta horren inguruko hausnarketa egitera bultzatzen zuen. (AIF arteinvestigaciónyfeminismos, 2018)

Horrez gain, 1985 urtean *Guerrilla Girls* izeneko aktibista feminista taldea sortu zen. Talde feminista hori Estatu Batuetakoa da, eta gaur egun ere obra eta ekintza desberdinak egiten ditu. Honek Hollywood, museo eta gobernuaren aurka egiten du. Emakume artista desberdinez osatuta dagoen eta anonimoa den taldea da eta artearen munduan dagoen ustelkeria, sexismoa eta arrazismoa erakustea da honen helburua. Oro har, genero guztiak eta gizakien eskubideak defendatzen dituzte. Eremu publikoan gorila itxurako maskarak erabiltzen dituzte hildak dauden artista emakumeen izenak erabiliz; Kollwitz, Alba Thomas, Frida Khalo, etab. Modu horretan, salatzen dituzten gaietan arreta jartzea lortzen dute eta ez artista bezala duten identitatean. (Pierucci, 2017)

*Guerrilla Girls* taldeak proiektu desberdinak garatu ditu mundu osoan zehar eta horien artean, ekintzak, liburuak, bideoak, kartelak, etab. daude. Proiektu horietan, datu, zifra eta ehuneko errealak erabiltzen dituzte umore, ironia eta inpaktu handiko diseinuak erabiliz. Museoetan, emakume artistaren presentzia %5 baino gutxiagokoa baina gorputz biluzien %85 femeninoa dela ikusita, kartel batean honako esaldia adierazi zuten: “*Do women have to be naked to get into the met. Museum?*”. Kartela eragin handia izan zuen gizartean eta orain dela gutxi, kale eta museoen inguruko proiektu berriak sortu

dituzte “*Tate Modern*” eta “*Whitechapel Gallery*” (Londres) eta Van Gogh-en museoan (Amsterdam), besteak beste. (Pierucci, 2017)

Esandakoa kontuan hartuz eta *Guerrilla Girls* taldeak adarrikatzen duen bezala, museoetan ere, gizonezkoen presentzia handiagoa da emakumezkoena baino. Adibidez, “*El Prado*” museoan emakumeek egindako lau obra daude eta 200 urteetan zehar, emakume bakar baten erakusketa egin da. Emakume bakar baten erakusketen portzentaia “*Whitney*”, “*Guggenheim*”, “*LACMA*” eta Los Angeles-ko “*MOCA*” museoak erreferentetzat hartuta, %20-tik beherakoa da. Halaber, museoen zuzendarien %80 gizonezkoak dira eta emakumeen obrak gizonezkoenak baino merkeago saltzen dira. Nabarmentzekoa da Arte Ederretako fakultatean hamar ikasletik sei emakumeak direla baina hamar saritik zazpi sari gizonezkoentzat direla. (Domínguez, 2018)

### **3. 3. Hezkuntza**

Familiaz gain, hezkuntza jarrera, balore, ohiturak eta ezagutza desberdinak helarazten dituen da eta ez ekintza diziplinarrean eta askatasunean oinarritutako kontzeptuak soilik (Altable, 1997). Hezkuntzak pertsona bakoitzaren garapen osoa du helburutzat, etorkizun batean gizartearen parte-aktiboa izateko asmoz. Halaber, pertsonen arteko erlazio modu bat da eta horren bidez, bizi garen kultura, erakundeak, etab. ezagutzeko eta arakatzeko aukera dugu. (Lamas, 2000)

Hezkuntzak ezagutza desberdinak adierazten ditu ikastetxean edo unibertsitatean dauden ideiak, irakasleen ideologiak, errutinak, arauak, eta abarren bitartez, hau da, ezarrita dagoen gizarte edo kultura baten ideiak jarraituz. Gizartean ematen diren erlazio eta egoeren bitartez, ezagutza berriak barneratzen dira eta ezkutuko Curriculum-a osatzen da. Ikasketa hauek ez dira modu kontzientean egiten gizartean dauden ohiturak, harremanak, etab. direlako. (Altable, 1997)

Gaur egun, Curriculum-a gizarte industrializatuetan dagoen ezagutza helarazteko erabiltzen den tresna da. Tresna hori eskola batek hezkuntza proiektua zehazten duten baldintza desberdinen barnean errealia egiten duen kulturaren adierazpena eta zehaztasuna da. (Ferrini, 1997)

Ilido beretik, gai edo irakasgai Curricularrak Matematikak, Fisika, Kimika, Biologia, Literatura, Historia, Arteak, Geografia, etab. dira. Irakasgai hauek, gizakiek garai askotan



zehir erabili dituzten ezagutzak dira eta ezin ditugu alde batera utzi. Hauek gure eta beste garaietan bizi izan diren pertsonen pentsamenduari forma eman diotenak dira, hau da, gure herentzia kulturala dira. (Busquets, Cainzos, Fernández, Leal, Moreno eta Sastre, 1993).

Haur Hezkuntzako 237/2015 Dekretuan ere gai Curricularrak lantzen dira hauek egoki jorratzeko izan eta lortu behar diren gaitasunak eta helburuak garatuz. Nahiz eta errespetua eta berdintasuna aipatzen diren 237/2015 Dekretuak ez du genero berdintasunean oinarritutako atal bakar bat eta ez zaio beharrezko garrantzia ematen.

Esandakoa kontuan izanda, aberasgarria izango da zeharkako hezkuntza garatzea. Modu horretan, ezagutza disziplinarraren eta gai eta testuinguru sozial, kultural eta etikoen artean lotura sortuko da. Ondorioz, jakitea, egitea eta izatea ingurunea, prebentzioa, bizikidetzak demokratikoa, afektibitatea eta sexualitatearen inguruan pertsona indibidual eta sozial bezala garatzeko irakaskuntza integralak izango dira. (Ruz eta Bazán, 1998)

Transbertsalitatea hezkuntzan beharrezkoa da gaur egun bizi garen gizartean dauden eskakizunei eta beharrei erantzuna emateko Curriculum-ean ezarrita dauden irakasgaiekin bakarrik ezin direlako ase (Ferrini, 1997). Transbertsalitateak kontzeptu berri bat sortzen du. Honek eremu sozial, kultural, politiko, ekonomiko eta hezkuntzan dagoen errealitatea ikertzeko dagoen beharri erreferentzia egiten dio emakume eta gizonen arteko desberdintasun soziala ikusita. (Pérez del Rio, 2002).

Emakume eta gizonen artean dauden desberdintasunei erreferentzia eginez, genero kontzeptua ere hezkuntzan zeharkako modu batean landu beharreko kontzeptua da. Kontzeptu hau emakume eta gizonen arteko desberdintasunean garapenak lortzeko erakunde publiko guztien erantzukizuna bezala erabiltzen da. (Altable, 1997)

Zehar-generoa emakume eta gizonen arteko berdintasunezko gizarte bat sortzeko lehentasunezko estrategia da. Nabarmendu beharra dago, gure kultura androzentrista dela eta bertan subjektu maskulino eta femeninoak daudela. Ondorioz, garrantzitsua da bi sexuen arteko interakzioa, baita horien artean dauden gatazkak ere berdintasun ikuspuntu batetik lantzea. (Altable, 1997)

Zalantzarik gabe emakumearen paperari erreferentzia egiten badiogu, gaur egungo gizartean aurrerapenak egin dira. Lorpenak egon diren arren, oraindik, emakumeenganako indarkeria nabarmena da eta agerian jartzen du gizartean generoaren ondorioz diskriminazio estrukturala gertatzen dela. (Pérez del Rio, 2002)

### 3. 3. 2. Ikuspegi feministak hezkuntzan

Sozializazio prozesua genero-mugetatik aske izateko, hezkuntza morez jantzi behar da, hau da, genero analisia ezinbestekoa da hezkidetzan prozesuak sortzeko eta pertsona askeak eraikitzeko. Horretarako, betaurreko moreak jantzi behar ditugu. (EHUko berdintasunerako zuzendaritza, 2019)

Adierazitako betaurrekoen kolorea morea izatearen arrazoia, feminismoa ikuspegi hori ematen diguna delako da. Teoria feministek neskak, mutilak, generoa, maskulinoa, femeninoa, gizartea eta errolak kontzeptuen inguruan ikerketa eta analisi sakonak egin dituzte. Ikerketa eta analisi horiek argibide handiak eman dituzte hezkidetzan esku-hartze egokiak egin ahal izateko. (EHUko berdintasunerako zuzendaritza, 2019)

Hezkidetzan, hezkuntzan landu beharreko kontzeptua da. Hezkidetzan hezteak neskak eta mutilak modu berdinean heztean datza sexu desberdintasunei uko eginez (Alfonso, 2016). Oro har, hezkidetzan hezteak ez da erraza izango gizartean, Yolanda Domínguez-ek adierazten duen moduan, nahi gabe barneratzen ditugun estereotipoak daudelako (TEDxMadrid, 2017). Ondorioz, gela barruan eta kanpoan ere adierazten ditugun hitzekin, gelaren antolakuntzarekin, gelan gertatzen diren bidegabekeriekin, eta abarrekin kontuz ibili behar gara horien bitartez estereotipoak adierazten ditugulako nesken eta mutilenganako itxaropen desberdinak sortuz. (Alfonso, 2016)

Gure eginkizuna irakasle moduan, berdintasunean oinarritutako hezkuntza batean, neska eta mutilengan ezagutza eta jarrera baikorrak sustatzeaz gain, historian zehar zientzian eta arlo desberdinetan egon diren gizonen baita emakumeen aurkikuntzak ere adieraztea da. Ondorioz, emakumeak etxeko lanak eta familia kideen zaintzaz arduratzeaz gain, haurrek historian emakume garrantzitsuak egon direla barneratzea baita zaintza garrantzizko lana dela aitortzea eta baloratzea lortuko dute ere. (Muñoz, 2009)

Hezkidetzan modu egokian garatzeko zentzu horretan, gure buruarekiko eta gure inguruan dauden pertsonen keinu okerrekin, kritikoagoak izan behar gara. Bidegabekoa den zerbait entzuten badugu isilik ez geratu eta gure iritzia eman. Pixkanaka bidegabekeriei aurre egiten badiegu gizartea ere aurrera egingo du. (Alfonso, 2016)

Ilido beretik, Yolanda Domínguez hezkuntzan feminismoaren alde egiten duen emakume adierazgarrietako bat da. Bere bizitza artistikoaz gain, hezkuntzan ere lan egiten du unibertsitate eta eskola desberdinetan hitzaldiak eta tailerrak eginez. Egiten dituen hitzaldiak eta tailerrek inguruko gizartean publikitatearen argazkiek duten botereaz kontzientziazteaz

nahi du. Argazkiak behin eta berriz ikusten ditugu eta nahi gabe horien bitartez irudikatzen diren estereotipoak barneratzen ditugu. Hauek txikitatik gure bizitzan daudenak dira eta gure identitatea horren inguruan sortzen dugu. Adibidez, neskak printsesak dira eta edertasunarekin erlazionatzen dira. Mutilak berriz, indartsuak eta astakirtenak irudikatzen dira. (TEDxMadrid, 2017)

Emakumearen eta gizonaren arteko desberdintasunak nabarmenak dira eta guk ahalbidetzen ditugu propaganda, komentario, txiste, eta abar adieraziz. Garrantzitsua da hezkuntzan errespetua eta hezkidetzak kontzeptuak, besteak beste lantzea eta benetan horietan sinistea. Guztiok aldatu behar dugu eta kontzienteak izan behar gara esaten eta egiten dugun guztia txikiak errepikatzen dutela haien erreferenteak garelako. (TEDxMadrid, 2017)

Hezkidetzaz gain, genero berdintasuna eta genero indarkeria ekiditzeko programa eta prestakuntza beharrezkoa da. Euskal Herriko Unibertsitatearen kasuan, EHUko web-gunean feminismoaren eta genero berdintasunaren aldeko atal bat dago non artikulua eta online ikastaro desberdinak agertzen diren. Halaber, genero berdintasuna eta generoa bultzatzeko planak adierazten dira irakasle eta ikasleen formakuntzarako. Berdintasun planaz gain, genero indarkeriaren aurkako protokoloa garatzen da. Bertan, lege desberdinak agertzen dira baita emakumearen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta hau ekiditzeko planak ere. (Euskal Herriko Unibertsitatea, 2019). Nabarmenezkoa da Euskal Herriak genero berdintasunean espezializatua dagoen master propioa duela. Masterra Ibaetako kanpusean garatzen da zuzenbide fakultatean, zehazki eta guztira 70 kreditu balio ditu.

Horrez gain, ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Vitoria sariaren VII. edizioa egingo da. 2018an defendatu ziren eta aho batez *“bikain cum laude”* kalifikazioa jaso zuten tesiak saria lortzeko hautagai izan daitezke. Hautatutako tesiak EHUko Berdintasunerako Batzordeko bost irakasle eta ikertzailek osatutako epaimahai baten aurrean aurkeztu beharko dira. (Fernández, 2019)

Orokorrean, pertsona bat bere eremu sozialaren emaitza da batez ere, inguratzen duten faktore sozialen emaitza, inguruan duen kulturaren emaitza. Taldearen eragina kolektibo guztietan mantentzen da, baita arau sozialetatik ihes egin nahi dutenen artean ere. Prozesu horretan, hezkuntzaren lana oso garrantzitsua da, hezkuntzaren bidez txertatzen baitzaizkio gizabanakoari ohiturak, arauak eta gizartearen balioak. (Muñoz, 2009)

#### 4. HELBURUAK

Gizartean egon den egoera jakinda, hau da, emakume eta gizonen artean dauden genero desberdintasunak ikusita generoa, artea, matxismoa, feminismoa eta hezkuntza kontzeptuen inguruko inkesta bat garatu da. Modu horretan, gaur egungo 15 eta 30 urte bitarte dituzten pertsonen pentsatzeko modua eta haien iritzia adierazitako kontzeptuetaz jakin ahal izango da.

Sortu den inkestarekin hainbat helburu lortu nahi dira. Helburu garrantzitsuena gaur egungo jende gaztea gizartean dagoen emakume eta gizonen arteko desberdintasunetaz kontzientziatuta dagoen jakitea da. Modu horretan, gaur egungo gizartean aldaketak gertatzen ari diren eta bertan, hezkuntzak zer nolako papera duen ezagutu ahal izango da. Halaber, patriarkatua, matxismoa, etab. gure gizartean dauden kontzeptuak dira eta hauei aurre egiteko belaunaldi berrien laguntza behar da. Gazteek gizartearen parte aktiboa dira eta hauen pentsamendua nolako den jakitea garrantzitsua izango da.

Horrez gain, beste helburu batzuk ere lortu nahi dira. Horien artean, generoa, matxismoa eta feminismoa kontzeptuak noraino menperatuta ditugun jakitea helburua dago. Gaur egun kontzeptu horien esanahia jakitea garrantzitsua da kontzientzia hartzeko gizartean dagoen genero desberdintasuna, etab. ulertzeko baita barneratzeko ere. Asko kritikitzen da feminismoa ez duela emakume eta gizonen arteko berdintasuna defendatzen eta hori gertatzen da benetan ez garelako pentsatzera edo horren inguruan informazioa bilatzera gelditzen. Beharrezkoa da gai baten inguruan ondo informatzea horretaz zentzuz hitz egiteko .

Hezkuntzak benetan generoa eta feminismoaren alde egiten duen edo ez jakin nahi da. Hezkuntzak garrantzi handia du pertsonen garapen eta eraikuntzan eta bi kontzeptu horien lanketa gelan garrantzitsua eta beharrezkoa da. Nahiz eta hezkuntzak genero berdintasunaren alde egon eta teoria “*ondo*” ezagutu, gero praktika garaian zein neurrirarte benetan lantzen den edo ez jakitea helburua dago.

Helburuekin bukatzeko, 15 eta 30 urte bitarte dituzten pertsonen etorkizun batean gizartea aldatu egingo den eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortuko den edo ez jakitea helburua dago. Modu horretan, gazteek aurrera egiteko gogoia duten eta aldaketa gertu bat ikusten duten jakin ahal izango da. Garrantzitsua da aldaketa batean sinisten den edo ez jakitea eta benetan gure gizartean arazo bat dagoelaz kontzientzia hartzea.

## 5. METODOA

Genero desberdintasuna ez da kontzeptu berria, gure historian zehar gizartean aspaldian dagoena da. Emakumea etxean egon da beti eta ezin izan du arlo publikoan jardun. Gaur egun emakumearen egoera aldatu egin den arren, oraindik egiteko asko dago eta belaunaldi berriek gizartean emakume eta gizonen artean dagoen desberdintasunaz kontzientzia izatearen beharra dago. Horretarako, hezkuntzaren laguntza behar da eta guztiok horren parte izan behar gara.

Gazteek zein nolako pentsamendua duten jakiteko generoa, feminismoa, matxismoa, artea eta hezkuntzaren inguruko galdetegi bat sortu da. Inkesta 25 galdera ditu eta 15-30 urte bitarte dituzten pertsonentzat egin da.

Inkesta sortzeko, lehenik eta behin galdetegiarekin lortu nahi diren helburuak garatu dira. Helburuak argi egon direnean, galdera desberdinak sortu dira. Galderak zeintzuk izango diren jakin denean, internet-ko programa baten bidez inkesta sortu da. Internet-eko programa "*Formularios*" deitzen da eta *Google Drive*-etik sartu zaitezke. Bertan, inkestari titulu bat jarri, nahi duzun galdera kopurua adierazi baita galderak baino lehen gaiaren inguruko sarrera bat ere egin daiteke, besteak beste.

Inkestaren titulua "*Generoa desberdintasuna gizartean*" da. Bertan dauden galderak egiten hasi baino lehen, landuko den gaiaren inguruko sarrera bat egin da galdetegia egiten duen pertsona gaiaren kokatzeko eta ezer jakin gabe galderak erantzuten ez hasteko. Halaber, galdera-sorta egiten hasi baino lehen galdetegia egingo duen pertsonaren generoa eta adina zein den adierazi behar da. Genero aukerak femeninoa eta maskulinoa dira eta adin tartean hiru taldeetan banatzen dira. Lehenengo adin tartean 15-17 urte bitarteko pertsonak daude. Ondoren, 18-24 urte inguru dituzten pertsonak daude. Azkenik, 25-30 urte bitarteko pertsonak daude.

Horrez gain, galderen ordena zentzu batekin egin da galdetegia egiten duen pertsonak egitura bat jarraitu ahal izateko eta galduta ez sentitzeko asmoz. Halaber, galderak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi dira baita hauen erantzunak ere pertsona gehiagok inkesta egin ahal izateko.

Hasteko, generoaren inguruko galderak egin dira baita generoa eta hezkuntzarekin erlazionatutako galderak ere. Ondoren, feminismoaren inguruko galderak adierazi dira eta hezkuntza baita gizartearekin ere harremandu egin dira. Jarraituz, matxismoaren inguruko galderak garatu dira eta gaur egungo gizartearen egoerarekin erlazionatu dira. Horrez gain,

artea eta emakumearen inguruko galderak sortu eta hezkuntzarekin harremandu dira. Gero, emakumea eta lan munduaren inguruko galderak egin dira. Galderekin bukatzeko, etorkizunean emakume eta gizonen artean egongo den berdintasun egoeraren inguruan hausnartzeko galdera garatu da. Nabarmendu beharra dago, galdera gehienek “bai” edo “ez” dutela erantzun bezala inkesta nekagarria ez izateko. (Ikus eranskina 1)

Adierazitako guztia kontuan izanda, hau da, inkesta prest egon denean eta jende gehien inkesta erantzuteko asmoz, galdera-sortaren link-a sare sozial desberdinetik bidali da. Sare sozial horien artean, *whatsapp*, *facebook* eta *instagram* erabili dira, besteak beste. Inkesta egun batzuk aktibo egongo da eta 100 erantzunetara gutxi gora behera iristen denean, desaktibatu egingo da eta erantzunen batzuek bestekoa lortuko da.

Inkesta sare sozialetatik zabaltzearen ideia “*Me too*” mugimendutik hartu da. “*Me too*” emakumeek lan arloan pairatu dituzten abusu sexualak salatze erabiltzen den etiketa da. Honen bidez, abusu sexualak sufritu izan dituzten aktoreza famatuak, besteak beste beldur barik adierazi dezakete egoera berdina bizi izan duten emakumeen babesa sentituz. “*Twitter*” sare sozialaren bidez, *Rose McGowan* aktorezak *Harvey Weinstein* zinemako produktorearengatik pairatu izan zituen abusu sexualak salatu zituen lehenengo emakumea izan zen. Ondorioz, 2017 urtean “*Me too*” *hashtag*-a idatziz beste hainbat aktorezak ere Weinstein-enganik abusu sexualak jasan zituztela adierazi zuten etiketa birala eginez. Honek lortu zuen oihartzuna ikaragarria izan zen 85 herrietara zabalduz. Gaur egun miloika pertsonak eman dute elkartasuna aldarrikapen honi. (Gurmai eta Bijl, 2018). Iaz Globo sarien emankizunean, *Oprah Winfrey* kazetariak mezu bat helarazi zien munduko neskatxoei eta honela zioen: “*Egun berri bat irekitzen dago zerumugan...*”

## 6. EMAITZAK

Inkestaren bidez lortutako erantzunak aztertu eta gero, emaitza batzuk lortu dira. Emaitzak galdera bakoitzekoak izango dira eta arreta gehien deitu didaten galderak sakonago aztertuko dira hiru adin tarte eta bi generoen erantzunak desberdinduz.

Emaitzekin hasiz, nabarmendu beharra dago inkestan parte-hartu duten pertsonen artean, genero femeninoaren presentzia genero maskulinoarekin alderatuta handiagoa dela. Genero femeninoak duen parte-hartzaileen portzentaia %76,41 da. Genero maskulinoa dutenen portzentaia berriz, %23,58 da. (Ikus eranskina 2)

Generoaz gain, hiru adin taldeen artean desoreka handia dago. Inkestan presentzia gehien duen taldeak 18-24 urte bitartekoen taldea da %71,43 izanda. Beste bi adin taldeek portzentaia gutxiago dute 15-17 urteko ingurukoek %16,19 eta 25-30 urte bitartekoek %12,38 baitute. (Ikus eranskina 3)

Galderen erantzunei erreparatuz, inkestaren 1. galderaren (Generoaren definizioa ematen jakingo zenuke?) emaitzak daude. Galderari erantzuna emateko “*bai*” eta “*ez*” aukerak erabili dira eta orokorrean, pertsona gehienek generoaren definizioa ematen jakingo luketela erantzun dute (Ikus eranskina 4).

1. galderaren erantzunak sakonago aztertu dira eta adin tarteen baita generoen banaketa ere egin da grafiko desberdinak sortuz. Grafiko horien bidez, emaitzak argiago ikusi ahal izan dira eta 1. galderaren erantzun gehienak “*bai*” izan direla baieztatu daiteke bai hiru adin taldeen bai bi generoen partez. Nabarmendu beharra dago, “*bai*” eta “*ez*” erantzunen artean desberdintasun gehiago ikusten dela 18-24 urte bitarteko partaideen artean “*bai*” erantzunak %55,24 eta “*ez*” erantzunak berriz, %16,19 lortu baitu (Ikus eranskina 5). Halaber, 25-30 urte inguru dituzten partaideen bi generoei erreparatzen badiegu, genero maskulinoa duten partaideek baieztako gehiago lortu dute beste adinekin konparatuz genero femeninoak lortu baitu baieztako gehiena (Ikus eranskina 6).

Emaitzekin jarraituz, 2. (Hezkuntza generoa lantzeko prest dagoela uste duzu?) eta 3. (Zure esperientzia eskolan edo unibertsitatean genero lanketaren aldetik ona izan da?) galderen emaitzak negatiboak izan dira. 2. galderan partaideen %67,6 hezkuntza generoa lantzeko prest ez dagoela eta %32,4 baietz adierazi du (Ikus eranskina 7). 3. galderaren partaideen %58,42 haien esperientzia eskolan edo unibertsitatean generoa lantzen ez dela ona izan eta %39,6 baietz esan dute. Nabarmenezkoa da pertsona batek “*bai*” eta “*ez*” erantzunak adierazi dituela (Ikus eranskina 8).

4. galderari (Nola lantzen zenuten zure eskolan edo unibertsitatean generoa?) dagokionez, hiru erantzun posible daude; “Ez genuen lantzen”, “Jolasak egiten genituen” eta “Neska eta mutilen gorputz fisikoaz hitz egiten genuen”. Galdera honetan ere emaitza negatiboa izan da %52,8 ez zuela lantzen adierazi baitu. Egia da beste bi erantzunak oso gertu daudela %17,6 (Jolasak egiten genituen) eta %29,6 (Neska eta mutilen gorputz fisikoaz hitz egiten genuen) eskuratuz. (Ikus eranskina 9)

Gero, 5. (Hezkuntzan genero berdintasuna gehiago landu behar da?), 6. (Geletan generoa lantzeko modua berdin utzi edo aldatu egingo zenuke?) eta 7. (Bizi garen gizartean genero berdintasuna bermatuta dagoela uste duzu?) galderari erreferentzia badiegu, lortutako emaitzak argi ikusten dira. Erantzutako bi aukeren artean, batek gehiengoa eskuratu du ia %100-ekoarekin beste erantzunak portzentaia gutxi lortuz hiru galdera desberdinetan. (Ikus eranskina 10, 11 eta 12)

8. galderaren (Hezkuntzan generoa lantzeko transbestralitatea ideia ona dela uste duzu?) emaitzekin jarraituz, transbertsalitate kontzeptua ez dela ezaguna argi geratu da partaideen erdiak baino gehiagok transbertsalitatea ez dakiela zer den adierazi baitu (Ikus eranskina 13). Nabarmenezkoa da 15-17 urte dituzten partaideen artean transbertsalitatearen kontzeptua ezezagunagoa dela (Ikus eranskina 14).

Horrez gain, 9. galderaren (Feminismoaren definizioa ematen jakingo zenuke?) erantzunak aztertu dira. Galdera honen erantzun gehienak “bai” izan direla baieztatu daiteke hiru adin talde baita bi genero desberdinetan ere (Ikus eranskina 15). Adierazi beharra dago bi erantzunen artean desberdintasun gehiago ikusten dela 18-24 urte bitarteko partaideen artean “bai” erantzunak %64,36 eta “ez” erantzunak berriz, %6,93 lortu duelako (Ikus eranskina 16). Halaber, galdera honetan genero femeninoa duen 18-24 urte bitarteko pertsona batek “bai” eta “ez” erantzunak adierazi ditu galderari erantzuna emateko (Ikus eranskina 17).

Ondoren, 10. (Feminismoa eskolan eta unibertsitatean landu behar den kontzeptua da?) eta 11. (Feminismoa gizartea aldatzeko beharrezkoa dela uste duzu?) galderen erantzunak aztertu dira eta bi galderetan baiezkoa lortu dela baieztatu daiteke (Ikus eranskina 18 eta 19). Ezezkoen kasuan, nabarmendu beharra dago 10. galderan ezezko guztiek eta 11. galderan ezezko gehienek genero maskulinoa dutela (Ikus eranskina 20 eta 21).

12. galderari (Matxismoaren definizioa ematen jakingo zenuke?) erreferentzia eginez, erantzun gehienak “bai” izan dira %70,30 eskuratuz (Ikus eranskina 22). Halaber, hiru adin



taldeei arreta jartzen badiogu, 25-30 urte bitarteko parteide guztiek baietz adierazi dutela (Ikus eranskina 23). Nabarmentzekoa da 18-24 urte bitarteko genero femeninoa duen partaide batek bi erantzunak adierazi dituela (Ikus eranskina 24).

13. galderan (Matxismoa txikitatik ikasten duguna da?) baiezkoa lortu du portzentaia handiena %90,8 eskuratu baitu (Ikus eranskina 25). Matxismoaren inguruko galderekin jarraituz, 14. galdera (Zerk eragiten digu jarrera matxistak?) dago eta honetan lau erantzunetatik bi nabarmenak dira; *“gizarteak”* eta *“guztiak orokorrean”*. Nahiz eta bi erantzunak portzentaia altuak lortu erantzun *“guztiak orokorrean”* portzentaiak altuena eskuratu du (Ikus eranskina 26).

Adierazitako matxismoaren inguruko galderen emaitzak alde batera utziz, gaur egun matxismoa gure gizartean oraindik existitzen dela argi geratu da 15. galderan (Gure gizartea, oraindik, matxismoa existitzen dela uste duzu?) lortutako baiezko %100-rekin. (Ikus eranskina 27)

Artearen inguruko galderen emaitzei dagokienez, 16. galderan (Artearen ikuspegitik, emakumearen egoera nolakoa zela eta gaur egun dela uste duzu?) partaide gehiengoek txarra zela baina pixkanaka aldatu egin dela adierazi dute %59,4 portzentaiarekin. (Ikus eranskina 28)

Horrez gain, 17. galderan (Artista emakume edo gizon gehiago daude?) nabarmena da gehienek artista gizon gehiago daudela erantzun dutela (Ikus eranskina 29). Halaber, emaitza hauek sakonago aztertu dira eta bi generoak desberdindu egin dira adinak kontuan izan gabe. Generoak kontuan izanda, bai genero femeninoa bai genero maskulinoa duten partaide gehienek artista gizon gehiago daudela erantzun dute lehen adierazi bezala nahiz eta genero femininoko parteideen %5,56 emakumezko gehiago daudela azaldu duten. Adierazgarria da genero femeninoa duten %4,44 parte-hartzaileek bi erantzunak aukeratu dituztela. (Ikus eranskina 30)

18. (Emakumeren presentzia museoetan gizonezkoekin alderatuta zein portzentaikoa dela uste duzu?), 19. (Emakume baten erakusketa batera joango zinateke?) eta 20. (Arte ederretako fakultatean hamar ikasletik sei emakumeak dira, baina jakingo zenuke hamar saritik zenbat irabazten dituzten emakumeek?) galderak erantzuteko aukera desberdinak dituzte. Horien erantzunen arabera partaideek orokorrean, emakumearen presentzia museoetan %40 edo %20-tik beherakoa dela adierazi dute (Ikus eranskina 31) eta emakume baten esposaketa batera joango liratekeela baieztatu daiteke (Ikus eranskina 32). Halaber,

partaide gehienek emakumeek hamar saritik 3 sari irabazten dituztela erantzun dute (Ikus eranskina 33).

Ondoren, 21. galderaren (Orokorrean, emakume gehiago daude hezkuntza, erizaintza eta abarretan, hau da, zaintzara edo besteak laguntzera bideratuta dauden ikasketetan. Hori gertatzen dela uste duzu gizarteak eta kulturak helarazten dizkiguten balore edo ohiturengatik?) emaitzak baiezkoa adierazi dute %85,6 eskuratu. Partaide gehienek gizartean dagoen kulturarengatik eta dauden ohiturengatik emakume gehiago daudela hezkuntza, erizaintza, etab. fakultateetan adierazi dute. (Ikus eranskina 34)

22. galderari (Gaur egungo gizartean emakumeek nahi duten lanean espezializazioa lortu dezakete?) erreparatzen badiogu, lortu diren emaitzen artean erronka dagoela nabarmendu daiteke “*bai*” eta “*ez*” erantzunen artean ia portzentaia berdina lortu baita (Ikus eranskina 35). Emaitzak sakonago aztertzeko hiru adin tarteak banandu dira eta sortu diren grafikoei esker, 15-17 adin taldean berdinketa dagoela erantzuteko bi aukeren artean. Halaber, 15-17 eta 18-24 urte bitarteko bi taldeetan, partaideen %1,02 bi erantzun posibleak aukeratu du egon den erronka gehiago nabarmenduz (Ikus eranskina 36). Adierazgarria da bi erantzunak aukeratu dituzten partaideek genero femeninoa dutela beste galdera batzuetan gertatu den bezala (Ikus eranskina 37).

23. (Gizonezkoekin alderatuz emakumearen presentzia lan arlo guztietan berdina da?) eta 24. galderaren (Emakumearen presentzia politikan, enpresa bateko zuzendaritzan eta abarretan txikiagoa da. Zergatik uste duzu hori gertatzen dela?) emaitzei dagokienez, emakumearen presentzia lan arlo desberdinetan gizonezkoekin alderatuta ez dela berdina adierazi da “*ez*” erantzunak %92,4 portzentaia lortuz (Ikus eranskina 38). Halaber, emakumearen presentzia falta emakumeari gizonezkoekin baino garrantzi gutxiago ematen zaiolako, oraindik genero desberdintasunak daudelako eta gizona emakumea baino inteligenteagoa dela uste delako gertatzen da (Ikus eranskina 39).

Emaitzekin bukatzeko, 25. galdera (Etorkizunean, emakumearen egoera aldatu egingo dela eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortuko dela uste duzu? Zergatik?) dago. Honetan, partaideek haien erantzuna garatzeko aukera izan dute eta hainbat erantzun lortu dira. Erantzun horien artean, denetarik egon da. Batzuk, esperantzazko esaldiak adierazi dituzte esfortzuarekin emakumearen egoera aldatu egingo dela esanez. Beste batzuk aldiz, ezezko erantzuna izan dute matxismoa gure gizartean eta gure pentsamenduan beti egongo dela adieraziz, nahiz eta haien nahia gizartearen egoera hobetzea izan. (Ikus eranskina 40)

## 7. ONDORIOAK

Adierazitako emaitzak eta horiekin batera garatutako grafikoak kontuan izanda, hainbat ondorio lortu dira. Nabarmendu beharra dago eskuratutako emaitza guztiak ez direla kontuan izan ondorioak garatzeko ez baitzuten ikerketari ekarpenik egiten.

Ondorioekin hasteko, inkestaren gehiengoa genero femeninoko partaideak izan direla baieztatu da. Emakumezkoek besteak laguntzeko momentuan, prestuago daudela gizonezkoekin konparatuz eta are gehiago emakume eta gizonen arteko desberdintasuna gaiaren inguruko inkesta bat denean adierazi daiteke. Hori gertatzen da emakume askok pentsamendu erradiala dutelako, hau da, emakumeak zerbait egiten duenean pertsona guztietan pentsatzen dutelako eta horien onerako edo laguntza eskaintzeko egiten dituelako gauzak. Pentsamendu erradiala kulturala eta gizonezkoek ikasi beharreko kontzeptua da “*zaintza*” partekatzeke orduan guztiz erabilgarria suertatuko zaigulako.

Adin tarteen emaitzak aztertu eta gero, 18-24 adin bitarteko gazteek presentzia gehiago dutela sare sozialetan eta gai honetan informatuagoak daudela ondorioztatu daiteke. Nabarmendu beharra dago 15-17 adin bitarteko partaideen kopurua harrigarria izan dela gai honen inguruko inkesta edo ekintzetan parte-hartzea alde batera uzten zutela pentsatzen zelako. Belaunaldi berriek gaiaren interesa daukatela adierazi daiteke.

Generoa, feminismoa eta matxismoaren definizioak argi daudela baieztatu daiteke. Nabarmendu beharra dago 18-24 urte bitarteko gazteek kontzeptuak hobeto ulertu edo kontzeptuen inguruan informatuagoak daudela. Adin hori duten gazteek kontzeptuen eta gizartean dagoen genero desberdintasunaren inguruko kontzientzia gehiago dute eta berdintasuna gaiaren jantziagoak daude beste adin tarteekin konparatuz. Adierazgarria da ezezko gehien lortu den adin tartea 25-30 urte bitarte dituzten gazteen artean izan dela. Duela 15-20 urte ez zegoen gaur egun dagoen informazio, prestakuntza eta kontzientzia gaiaren inguruan.

Adierazi beharra dago matxismoaren definizioa orokorrean, argiago dagoela beste bi kontzeptuen definizioekin konparatuz. Hori gertatzen da matxismoa edo matxismo jarrerak egunero bizi edo entzuten direlako eta beste bi kontzeptuak ia ez direlako lantzen ez hezkuntzan ezta familia arloan ere ez. Gainera generoa eta feminismoa oraindik argi ez dauden kontzeptuak dira. Orokorrean, generoa ez da ondo lantzen hezkuntza arloan eta feminismoren inguruan handitzen ez garen arte ez dugu horren inguruan ia ezer barneratzen.

Matxismoa gure gizartean dagoen faktore boteretsua da eta txikitatik ikasten da kulturen barneratuta dagoelako. Jarrera matxistak edo pentsamendu matxistak gizartearen, eskolaren eta familiaren bidez ikasten dira. Hauek kate bat sortzen dute eta haien artean eragina dute. Patriarkatuaren egituraren ondorioz, matxismoa eratzen da. Matxismoa etxean ikusi daitekeen kontzeptua da eta hurrek txikitatik ikusi eta barneratzen dute. Modu horretan, familiak matxismoa irakasten du eta patriarkatuari mesede bat egiten dio haur horiek hazi egiten direnean matxismo jarrerak izango dituztelako, hau da, emakumearen *“esklabizazioaren”* alde egingo dute. Bai neskek bai mutilak txikitatik barneratuko dute zein izango den etxetik kanpo eta aldi berean etxean etxeko lanak egingo dituen eta zein izango den etxean boterea izan eta etxetik kanpo lan egiten duena. Ondorioz, patriarkatuaren jarraipena lortzen da. Pena bat da arazoa non dagoen jakin arren, ezer ez egitea.

Horrez gain, hezkuntza generoa lantzeko prest ez dagoela argi dago, generoa lantzeko momentuan neska eta mutilen gorputz fisikoaz hitz egiten baita eta ez delako benetan generoa zer den azaltzen. Txikitatik neskek *“alua”* eta mutilak *“pitilina”* dutela ikasten dugu eta gaia ez da sakonago lantzen. Orokorrean, geletan generoa ez da lantzen edo ez da modu egokian jorratzen. Ez dakigu nola landu eta *“beti egin den moduan”* irakasten da. Generoaren eta gai askoren inguruko prestakuntza falta dago eta beharrezkoa da haur osoak sortu ahal izateko.

Sexu identitatea, dibertsitatea, genero berdintasuna, etab. landu behar dira, hurrek nahi dutena izan eta sentitzen diren moduan adierazi ahal izateko, haiengan arazo larriak ekidituz besteak *“bezalakoa”* sentitzen ez direnean. Nahi gabe edo nahita haur robotizatuak eta berdinak sortzen ditugu eta *“normala”* den horretatik pixkat urruntzen badira gizartearen eraginez, baztertuak izango dira. Baina, zer da normala izatea? *“Desberdina”* izatea ez dago gaizki, *“desberdina”* izan zaitez! Desberdintasunak aberastasuna sortzen baitu!

Generoa lantzeko garrantzitsua izango da zeharkako eran hezkuntzan txertatzea baina inkestaren emaitzak ikusita, partaide gehienek transbertsalitate kontzeptua zer den ez dakite. Oraindik, hitz askoren definizioa edo funtzioa ez dakizkigu eta gure bizitzan erabilgarriak izan daitezke. Nabarmendu beharra dago 25-30 urte inguru dituzten gazte gehienek badakitela zer den transbertsalitate kontzeptua. Handitzen garen heinean eta egoera desberdinen bidez, asko ikasten dugula argi dago baina txikitatik hasia beharrezkoa da eta oraindik egiteko asko dago.

Generoarekin jarraituz, hezkuntzan genero berdintasuna landu beharreko kontzeptua da. Gizartean genero berdintasuna bermatuta ez dagoela esan daiteke egunero ikusten diren generoen arteko bidegabekeriengatik. Genero desberdintasuna nabarmena da eta emakumeak eta gizonak eskubide berdinak izan beharko zituztela barneratzea garrantzitsua da. Genero berdintasuna txikitatik lantzen hastea beharrezkoa izango da etorkizunean gizarte orekadun baten parte aktiboa izateko.

Inkestaren bidez eta genero berdintasuna kontuan izanda, feminismoa hezkuntzan landu beharreko kontzeptua dela eta honi esker, gizartearen egoera aldatu daitekeela adierazi da. Nahiz eta feminismoaren inguruko galderak positiboak izan badaude erantzun negatiboak honen inguruan eta gehienak genero maskulineko partaideek adierazitakoak dira.

Genero maskulinoa duten gazte batzuk ez dira kontzienteak emakumeak gizartean duen egoeraz eta feminismoa ez dela beharrezkoa defendatzen dute. Gaur egungo gizonak ez dituzte emakumeek jasaten dituzten egoera deserosoak bizitzen eta horren ondorioz, feminismoa ez duela ezer aldatuko aldarrikatzen dute. Nabarmendu beharra dago gizartean gizonez gain, emakume asko daudela feminismoan sinisten ez dutenak. Adierazitakoa, gizartean dagoen ezjakintasunarengatik eta feminismoari egin zaion prentsa txarrarengatik gertatzen da. Feminismoa gizonen zapalkuntza helburutzat duen mugimendu bezala ulertu da askotan, tamalez, ez guztien berdintasuna bilatzen duen mugimendua bezala. Feminismoak emakumeen eskubideak lortu nahi ditu gizonen gainetik egon gabe. Gizonak betidanik izan dituzten pribilegioak guk ere nahi ditugu haiek bezala gizakiak garelako.

Feminismoa emakumeen eskubideak bakarrik defendatzen eta gizonetzkoak zapaldu nahi dituen mugimendu bezala gaizki ulertua izan da. Pertsona gehienek *“zergatik erabiltzen da feminismo eta ez berdintasun hitza?”* galdera egin dute noizbait. Feminismo hitza erabiltzen da genero baten zapalkuntza gertatzen delako eta desoreka hori konpondu bitartean neurri hezitzaile zorrotzak behar direlako.

Horrez gain, gizartean dauden ohituren eta kulturaren eraginez emakume gehiago daudela zaintzara eta besteak laguntzera bideratuta dauden ikasketetan baieztatu daiteke. Txikitatik neskek panpinekin jolasten dute hori oparitzen zaielako, etxeko gauzak egiten laguntzen dute, etab. Gizonak berriz, beste ekintza batzuk egiten dituzte etxetik kanpo, kotxeekin jolasten dute, etab. Ondorioz, handitzen garenean gure pentsamenduak bizi izandakoaren eraginez osatzen dira eta ikasten duguna gure pentsamendu eta sentimenduen ingurukoa da.

Emakume askok besteei laguntzera bideratzen dute haien etorkizuna eta gizonen “*garrantzi gehiago*” duten ikasketak jorratzen dituzte; arkitektura, ingeniari, etab. Ondorioz, “*kristalezko sabaia*” fenomeno gertatzen da. Honetan, emakumeek gizonen egiten dutena egiteko gai ez direla eta haiek bezain ondo egingo ez dutela pentsatzen dute emakumeak bigarren planoko lan batean geratuz. Azkenean, emakumea gizonaren itzala bihurtzen da gizonen boterea lortuz.

Emakumeek etxeko lanaz arduratzen dira eta hori traba da nahi duten ikasketak jorratzeko edo nahi duten lan batean espezializatzeko. Zailagoa da etxeko lanak, familia kideen zaintza, etab. eta ikasketa batzuk edo gizonen egiten duten “*garrantzizko*” lan bat aldi berean egitea denbora behar delako. Adibidez, Maite Zugarrondo eskubaloiko kirolari famatuak bere ilobak zaindu behar dituelako kirola utzi du kirolaria izateko denbora geratzen ez zitzaiolako. Gainera eskubaloian profesional moduan jokatzeko ez du diru asko lortzen gizonen mailarekin alderatuta. Ilobekin denbora gehiago pasatzea eskubaloian jokatzeko baino gehiago merezi duela adierazten du.

Adierazitakoa kontuan izanda, emakumeek nahi duten lanean lan egin dezaketeela zalantzan dago. Inkestan erroka egon da “*bai*” eta “*ez*” erantzunen artean. Hori gertaera positiboa da gure buruetan zerbait aldatzen dagoelaren seinale delako. Pixkanaka emakumea aske da nahi duen lanean lan egiteko eta orokorrean, nahi duena egiteko gizonak betidanik egin duen moduan.

Illo beretik, emakumearen presentzia gizonen alderatuta politikan, enpresa bateko zuzendaritzan eta abarretan oraindik, txikia da. Partaide gehienek, emakumearen presentzia falta emakumeari gizonen baino garrantzi gutxiago ematen zaiolako, oraindik genero desberdintasunak daudelako eta gizona emakumea baino inteligenteagoa dela uste delako gertatzen da. Lehen adierazi bezala, emakumeak gizonari boterea uzten dio gizonak lortzen duena lortzeko eta egiteko gai ez dela pentsatzen delako. Nabarmendu beharra dago badaudela emakumeak aldaketa handiak egin dituztenak eta zientzialari, politikari, astronauta, etab. garrantzitsu izatera ailegatu direnak; Marta Macho, adibidez. Zaintzaren ardura gizonen zuzentzen zaien heinean, emakumeek askatasuna lortzen dute nahi duten arloan jarduteko.

Artearen ikuspegitik eta beste lan batzuetan gertatzen den bezala, inkestan parte-hartu duten gazteek museoetan emakumearen presentzia %20-tik beherakoa dela adierazi dute erantzun zuzena emanaz. Ondorioz, gazteek gizartearen gertatzen den bezala beste arlo batzuetan emakumearen egoera ez dela ona dakitela baieztatu daiteke.

Betidanik emakumea gizonaren objektu subordinatua bezala tratatua izan da eta gizartean gertatzen zen eta oraindik gertatzen den bezala, emakumeak presentzia gutxi du. Ondorioz, ezagunak diren artista famatu gehienak guztiak ez esateagatik gizonak dira. Halaber, emakumeen artelanak “*arte txikitza*” hartu dira beti eta ez zaie gizonetzkoen arteari bezalako garrantzia eman.

Orokorrean, gazteek artearen inguruko ezagutza gutxi dute eta galdera batzuk instintiboki erantzun dutela uste dut. Nahiz eta partaide batzuk artean interes gutxi dutela adierazi, emakume baten erakusketa batera joango liritekeela helarazi dute partaide gehienek. Ondorioz, emakumeen artea “*arte txikia*” kontsideratzen den arren, gazteen artean emakumeak egiten duen artearen inguruan interesa erakutsi da. Arlo guztietan gertatzen den bezala gizonen lana edo gizon famatuen izenak gehiago entzuten dira emakumezkoenak baino nahiz eta emakume asko arlo desberdinetan presente egon.

Artearen inguruan eta artean emakumearen paperaren inguruan jakitea interesgarria eta erabilgarria iruditzen zait gizartean dagoen genero desberdintasuna baita gizonarekiko emakumeak duen eskubide falta ere isladatzen delako. Lan honen bidez, emakumeak pairatu dituen egoeren berri eta kuadro desberdinetan emakumea modu bortitzean nola margotzen zuten ikusteko aukera izan dut. Nabarmentzekoa da emakumea modu bortitzean margotuta agertzen den koadroa (“*El rapto de las Sabinas*”) eliza edo Arte Ederretako klase batean erakutsi edo ikusi daitekeela eredu eta arte bezala. Harrigarria da gauden mendean horrelako koadroak “*normaltza*” hartzea eta eredu bezala erabiltzea.

Argi dago bizi garen gizartean, oraindik, matxismoa eta genero desberdintasunei aurre egin behar zaiela. Horretarako, hezkuntzan genero berdintasuna eta feminismoa konponbide bezala sakonki landu behar dira hiritar osoak sortzeko eta gizartearen parte aktiboa izateko. Nolanahi ere, gizaki guztiek eskubide berdinak lortuko dituztela eta berdintasunean oinarritutako gizarte batean bizitzea ziur nago lortuko dela.

Adierazitako ondorioak garatu eta gero, nire helburuak lortu ditudala adierazi dezaket. Gizartean dagoen egoera aztertu ondoren, gaur egungo gazteek gizartean dagoen emakume eta gizonen arteko desberdintasunetaz kontzientziatuak daudela baieztatu daiteke. Halaber, generoa, matxismoa eta feminismoaren esanahiak gazteen portzentaia altu batek badakizki. Helburu horiez gain, hezkuntzak teorian genero berdintasunaren eta feminismoaren alde dagoela baina praktikan asko falta zaiola jakitea lortu da. Espero ziren baino emaitza positiboagoak eskuratu dira eta hori gizartea eta bertan bizi diren hiritarren pentsamendua baita ikuspegia ere pixkanaka aldatzen ari direlaren seinale da.

Esandako guztia kontuan hartuz, oro har, 15-30 urte inguru dituzten gazteek gizartea aldatzeko itxaropena dute eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna esfortzuarekin lortuko dela defendatzen dute. Hobera aldatzeko gogoa nabarmena da erantzun desberdinen artean. Garrantzitsua eta aspektu baikorra da gazteek aldaketa batean sinistea eta horren parte aktiboa izatea. Geldirik geratzen bagara eta gizartean gertatzen diren bidegabekeriaren aurrean ezer egiteak, zapaltzaileen alde jartzen gaitu.

Aldaketa lortu nahi badugu emakumea eta gizona hitza alde batera utzi behar dira. Guztiok gizakiak gara eta guztiok esfortzua egin behar dugu egoera aldatzeko. Mugitu behar gara eta berdintasunean oinarritutako gizarte berri bat sortu behar dugu. Defendatzen dugun horretan sinisten badugu dena posible da. Ez dugu ahaztu behar emakume batek bere eskubideak lortzeko pausua ematen duenean, gizartea osoa aurretatzen dela. Gure helburua lortzeko bidea ez dago eginda, badakigu nondik hasten garen baina ez dakigu zein bide hartuko dugun. Esther Ferrer-ek performance batean adierazi zuen moduan: “*Se hace camino al andar*”.



## 8. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lanean zehar garatutako informazioa bilatzeko, informazioaren kudeaketa egiteko, aztertu diren arloak aukeratzeko eta emaitzak adierazteko hainbat muga egon dira.

Lehenengo muga marko teorikoa osatzeko informazio falta izan da. Txostenaren marko teorikoaren egitura argi egon denean, hezkuntzan ikuspegi feministen informazio falta nabarmena izan da. Hezkidetzeta eta genero transbertsalitatearen inguruko informazioa aurkitzea berehala lortu da baina feminismo teoriak hezkuntzan aurkitzeko zailtasunak azaldu dira. Azkenean, web-orri desberdinak bilatuz eta begiraturaz, Yolanda Dominguez eta Esther Ferrer emakumeak aurkitu dira. Haien ekintza eta pentsamenduei esker hezkuntza feminismo ikuspegi batzuk adieraztea lortu da.

Informazioa aurkitu denean, zaila izan da informazio garrantzitsuena aukeratzeko. Nahi gabe informazio guztia baliogarria eta beharrezkoa zirudien eta sintetizatzeko arazoak agertu dira. Azkenean, adierazitako informazio guztia, modu eraginkorrean eta sintetikoan azaltzea lortu da.

Horrez gain, aztertu diren arloak aukeratzeko zailtasunak egon dira. Gaia argi zegoen baina hezkuntzan benetan genero berdintasuna eta feminismoa lantzen den edo ez jakiteko zer eta nola egin, aukeraketa zaila zen. Orduan, inkesta bat egitea pentsatu zen. Inkesta bat egiten zen lehenengo aldia zen eta hau gauzatzeko, internet-en bidez formakuntza bat egin da. Berdina gertatu da emaitzak adierazteko orduan *Excel* programa erabili nahi zela emaitza zehatzagoak lortzeko. Inkesta egiten ikasteko egin zen bezala, formakuntza txiki bat jorrratu da *Excel* programa ondo erabiltzen jakiteko. Hori esker, orain inkesta bat egiten eta *Excel-a* ondo erabiltzea lortu da. Esan daiteke muga edo zailtasun honek tresna edo programa berriak erabiltzen ikasteko balio izan dela. Gauza txarretatik zerbait ona dator beti.

